


# NUKLEAR ZENTRALIK ez



Azken hilabete honetan sortu berria da "Euskal Kostalde ez nuklearraren defentsarako Batzordea". Hori dela eta, talde horrek prestaturiko zenbait txosten heldu dira nire eskuetara, eta, dudarik ez, txosten horiek aipamen berezia merezi dutela uste dut.

Interesgarria da, alde batetatik, batzorde hori nortzuk osotzen duten jakitzea: oraingoz, Famili

Elkarte batzutako nuklear arazorako batzordeek, Prezeski, Lekeitio, Mungia, Ea, Lemoiz eta Bilbo Haundiko Famili Elkarte gehienak talde horretan daude.

Lanean hastearekin batera, Batzorde horrek gutun bat idatzi dio Bizkaiko Diputazioari, nuklear zentralak eraikitzearen aurka dituen keza zalantza eta kezka adieraziz eta Lemoizeko proiektu eta lanen geldierazpena eta Izparter-Eako projekturako behar den aurrebaimenaren ukoa eskatuz eta exigituz.

Eskari hori, Gipuzkoako Diputazioan egin den txostenean finkatzen da neurri handi batetan. Dakigunez, Gipuzkoako Diputazioak ukatu egin du, Debarako pentsaturik zegoen nuklear zentrala eraikitzekeo projektuaren aurrebaimena, Dames & Moore Iberia.S.A. delako entpresak eginiko estudio batetan finkaturik.

Horretaz gainera, Iberduero,S.A. delakoak proiektu hauen inguruan egin dituen irregulartasun juridiko-administratiboak, teknikoak eta sozio-ekonomikoak salhatzen dira gutun horretan.

Jadanik, hainbeste talde eta pertsonak sinatu dute gutuna. Erantzun egokirik emanen ote die Diputazioak?.

J.R.Etxebarria